



ALBOAN  
www.alboan.org



# Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako



## **ALBOAN Lankidetzak koadernoak**

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

# Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

[alboan@alboan.org](mailto:alboan@alboan.org)

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: Ainhoa Artetxe-ALBOAN

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1276-2014

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaitzen baldin bada.

# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b>	5
<b>2. Zer esanahi du bide-laguntzak?</b>	7
2.1. Bide-laguntza ulertzeko zenbait modu	8
2.2. Bide-laguntza pertsonala eta taldeen bide-laguntza	9
<b>3. Hegoaldeko erakundeei bide-lagun egitean ikasitakoak</b>	15
3.1. Zein dira beharrik sentituenak?	15
3.2. Zer balioesten dute eta zer eskatzen digute erakunde aliatuek?	16
3.3. Zer ikasi dugu esperientziarekin?	17
<b>4. Garapenerako lankidetzaren esparruan bide-lagun egiteko gure proposamena</b>	19
4.1. Ikuspegian	19
4.2. Praktikan	20
<b>5. Eztabaidatzeko daudenak</b>	25
<b>6. Bibliografia</b>	29



## 1. Aurkezpena

*“Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako”* izeneko koaderno honen helburua da eraikuntza kolektiboari diskurtsoa eta tresnak ematea, euskal lankidetzako eragile guztiek eraginkortasunerako gako praktikoak izan ditzaten. Bertan, modu argian adierazten da, **ALBOAN**en ustez, eta gure erakunde aliatuekin hitz egin da, nola egin beharko genukeen lan, eta zer harreman eduki beharko genituzkeen lankidetzaren arloan.

Gaur egungo lankidetzaren deszentralizatuari egiten zaion kritikarik handienetako bat da laguntzaren katea bertikala dela, eta horrek zaildu egiten duela kate horren beheko mailetan erabakiak hartzen parte hartzea, eta goiko mailek errealitatea ez ezagutzen eta konturik ez ematea dakarrela.

Lankidetzaren deszentralizatuak eskema hori gainditu dezake eta gainditu behar du. Autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako gobernuek sustatu duten lankidetzaren zati handi batek honako bide hau hartu du: proiektuak eta programak egitea Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde bidez (aurreantzean, GGKE), haien politika zabaltzeko. Bide horri egozten zaizkio normalean laguntzaren kateko gaitzak. Nolanahi ere, onartu behar da GGKE-oi Hegoaldeko biztanleen arazoetara eta haien testuingurura hurbiltzeko balio izan digula, horrenbeste formulazio, esparru logiko eta justifikazio egon arren. Hurbiltasun hori asko balioesten dute herritarrek, sentitzen dutelako lankidetzaren programen baliabideak gehien behar dituztenengana iristen direla. Bide horretan, GGKE-ok ibilbide luzeko harremanak garatu ditugu (hamarkadaka neurtzen dira dagoeneko), eta lankidetzaren deszentralizatuak hobetzeko erabil ditzakegu orain.

Dena den, ikuspegi horrek muga nabarmenak dauzka, eta beharrezkoa da eske-  
ma hori gainditzea, beste tresna batzuetara igarotzeko: tresna horiek garapen-  
prozesu bakoitzaren testuingurura egokituta egon behar dute, garapenak zer  
izan behar duen edo zer izan behar ez duen dioten aurretiko premisa gutxiago  
eduki behar dituzte, proposatutako esku-hartze estrategiak gauzatzeko malgu-  
tasun handiagoa eman behar dute, epe luzeragokoak izan behar dute, eta ahalik  
eta modurik horizontalenean uztartu behar dituzte giza garapenaren kota area-  
gotzeko helburu komuna duten eragileak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko  
muga ikusezinaren bi aldeetako gizarte zibila eta tokiko administrazioak indartuz.

Ikuspegi horretatik, beharrezkoa da **bide-laguntza** sartzea gure autonomia-  
erkidegoetako gobernuak eta tokiko gobernuak sustatzen duten lankidetz-  
filosofiaren barruan. Bide-laguntza honako hau da: elkarri entzuteko, elkarrekin  
hitz egiteko eta elkarri babesa emateko bide partekatu bat, non elkarrekin plani-  
fikatzen dugun, elkarrekin gauzatzen ditugun proiektuak eta kontuak ematen diz-  
kiogun elkarri, bi alderdiok elkar aberasteko eta elkarri laguntzeko. Bide-laguntza  
horrek eskatzen du barneko erresistentziak gainditzea, ausardia izatea erronka  
handiei aurre egiteko, eta buru-argitasunez eta pertseberantziak jokatzea une  
zailetan. Jarduteko modu hori aurrera eramateko, epe luzeko aliantza estrate-  
gikoak egin behar dira Iparraldeko eta Hegoaldeko eragile sozial eta instituzional  
deszentralizatu batzuen artean.

Horregatik, koaderno honetan adierazi dugu gure nahia dela bide-laguntza era-  
biltzea lanerako ikuspegi eta modu gisa, eta horri buruzko zenbait hausnarketa  
jaso ditugu. Azpimarratu nahi dugu premiazkoa dela aliantza-ikuspegiak gara-  
tzea kontratu-ikuspegiaren ordez, eta erakunde aliatuekin eta lankidetzako eragi-  
leekin lan egin behar dugula gure harremanak berritzeko eta elkarren bide-lagun  
izanez hazteko, justiziaren eta guztion onaren alde.

Azkenik, argitu behar da **ALBOAN**en beste dokumentu batzuetako eta Jesusen  
Lagundiaren Loiolako Probintziaren beste dokumentu batzuetako ohar eta kon-  
zeptuak erabili ditugula hemen jaso ditugun hausnarketan oinarritzat, ekarpe-  
nak egiten dizkiotelako eta zentzua ematen diotelako nazioarteko lankidetzaren  
esparruan lan egiteko dugun moduari.



## 2. Zer esanahi du bide-laguntzak?

Honako hau da bide-laguntza: gizarte zibileko erakundeek eta lankidetzaren deszentralizatuko eragileek elkarrekin harremanak izateko bide gisa lantzen eta sustatzen duten lan-estilo edo -modu bat. Lankidetzaren filosofiari eragiten dion elementu bat da, eta sustatzen du epe luzeko loturak sortzea lurraldeen, giza taldeen eta agintarien artean, joan-etorriko lankidetzaren bat izan dezagun guztion onara eraikitzeko.

Lankidetzaren deszentralizatuan, bidelagun izateak esan nahi du aliantzak sortzea toki bakoitzean eta eskualde bakoitzean, elkar aintzatetsiz, elkarri leialak izanez eta elkarri ekarpenak eginez. Justiziaren alde lan eginez pertsona behartsuenen alboan egoteak eskatzen du behetik, egunerokotasunetik, txikienetik ekitea. Gure lankidetzaren lanerako, honako hau ulertzen dugu bide-laguntzatzat: elkarri entzuteko, elkarrekin hitz egiteko eta elkarri babesa emateko bide partekatu bat, non esku hartzen duten lankidetzaren eragileek elkar aberasten duten eta elkarri laguntzen dioten diren horretan, egiten duten horretan eta jarduteko duten moduan.

Bide-laguntzak, horrela ulertuta, gure ekintzari balioa eransteko aukera ematen digu gizarte zibileko erakundeoi eta lankidetzaren deszentralizatuko eragileoi, hurbiltasun eta horizontaltasun handiagoa ematen digulako, eta giza garapena areagotzen eta pobreziaaren aurka borroka egiten laguntzeko dugun misioa zehazteko balio digu.

Bide-laguntzaren bidez, honela eraikitzen dira harremanak:

- Etorkizun bererantz bideratuta.
- Horizontaltasunarekin.
- Elkarrekiko konfiantzarekin.
- Komunikazio etengabearekin.
- Sor daitezkeen gatazkak konponduz.
- Elkarriketa irekiarekin.
- Elkarren ezagutza handiarekin.
- Elkar estimatuz.

## 2.1. BIDE-LAGUNTZA ULERTZEKO ZENBAIT MODU

Esku-hartze sozialean horrenbeste erabiltzen dugun “bide-laguntza” kontzeptua ulertzeko zenbait modu ekarri behar ditugu gogora. Kontzeptua ulertzeko modu desberdin horiek lagungarriak izan daitezke ulertzeko bidean lagun egiteko modu asko daudela, eta jakiteko zer motatako bide-laguntza sustatu eta landu behar dugun, une historiko honetan, garapenerako lankidetzatik egiten dugun lanean.

- **Adiskidetasuna** da bidean lagun egiteko modu bat. Bizitzan zehar eratzen ditugun harremanak bizitzaren alderdi sinpleak nahiz sakonak partekatzeko gune simetriko bat dira. Gune horretan, gure beldurrak eta nekeak alde batera utzi ditzakegu une batez, eta egunerokotasunean gertatzen zaizkigun gauza on guztiak ospatu. Gure lankidetzalanean, harreman eta adiskidetasun ugari sortu ditugu, eta balioa ematen diegu beste herrialdeetako eta beste testuinguru batzuetako aliatuekin harreman pertsonalak izateko gune horiei, aukera ematen baitigute bat etortzeko eta bat egiteko kausa batean eta haren alde borroka egiteko elkarrekin.
- Beste modu bat da **pertsonen bidelagun izatea** beren giza garapenean. Aurrekoa baino askoz asimetrikoagoa da, eta esan nahi duena da gizakiok hazten laguntzen diegula hurrei eta adingabeei modurik oinarrikoenean. Modu horrek zenbait alderdi hartzen ditu barnean: babesa ematea, esperientziak dosifikatzea, pazientzia izatea eta itxarotea, oraindik ere esperientziarik ez duena-

ren askatasuna errespetatzea eta babestea, eta maitasuna ematea. Urteek aurrera egin ahala, bide-laguntza horrek harreman simetrikoago bat ekarri behar du, ez itozteko autonomia eta sormena. Bide-laguntza mota hori garapenerako hezkuntzaren barruan da ohikoena. Adingabeei konpromisoarekiko sentsibilizaziotik lagun egiten diegunean ibilbide horretan, era horretako bide-laguntza gauzatzen ari garela esan dezakegu.

- Bestalde, **bide-laguntza instrumentalak** direlakoak ditugu; hau da, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta jakintza-dosi handiak behar dituen arte bat, ofizio bat, lanbide bat edo jakintzaren bat ikastea irakasle baten laguntzarekin. Bide-laguntza hori ere asimetrikoa da eta helburu bat dauka. Bide-laguntza jasotzen duen pertsonak pazientzia eduki behar du, ahalegindu egin behar du eta apaltasunez jokatu behar du. Bide-laguntza ematen duenak ere pazientzia eduki behar du, eta gainera, konfiantza eduki behar du beste pertsonarengan eta haren aukeretan, eta haren aldeko apustua egin behar du.

Bide-laguntza asimetrikoa den kasuetan ere, esperientziak erakutsi digu prozesu guztietan daudela elkarrengandik ikasteko guneak.

Baina bada beste bide-laguntza bat ere, *elkartasun-zerbitzuaren funtsezko laguntzatzat* uler daitekeena. Bide-laguntza horrek gizarte gisa giza garapenaren alorrean lortu nahi dugun etorkizunerantz hurbiltzen gaitu.

Bide-laguntza horrek gizarte zibileko pertsonei, taldeei eta erakundeei lagun egitera animatzen eta bultzatzen gaitu. Elementu baliotsuak atera ditzakegu bide-laguntza horretatik, pertsonok eta kolektibok hazteko eta gure onena emateko aukera izan dezagun.

## 2.2. BIDE-LAGUNTZA PERTSONALA ETA TALDEEN BIDE-LAGUNTZA

Garapenerako lankidetzan, pertsonen eta taldeen prozesuei lagun egiten diegu, oso modu naturalean. Hemen sartzen dira, adibidez, boluntarioentzako garapenerako hezkuntzaren esperientziak, hezkuntza eraldatzaile bat sustatzeko esperientziak edota garapenerako hezkuntzatik hazkunde pertsonalerako proposatutako esperientziak eta ibilbideak. Taldeko bide-laguntza ere ohikoa da, bai hezkuntzako ekintzetan, bai eta Hegoaldeko aliatuekiko harremanetan ere. Horregatik, bi bide-laguntza eremu horiek bereizten ditugu gutxienez, gure estrategiak eta lanerako moduak orientatzeko aztarnak ematen dizkigute eta.

**Bide-laguntza pertsonala** honako hau da: **norberaren giza potentziala misio partekatu eta solidario batekiko konpromisotik garatzea sustatzen duen prozesu bat.**

Prozesu horri esker, pertsonak beren giza gaitasunak azal ditzakete, beren motibazioak argitu, beren mugak eta porrotak onartu eta beren bizi-aukerei eutsi. Hori guztia sormen eta ekimen pertsonalak sustatzen dituen giro batean gauzatzen da, norberaren autonomia bultzatzeko.

Beraz, esan daiteke:

- Pertsonen egokitutako *prozesu bat*, pertsona horien errealitate zehatzetik eta bizitzako unetik abiatzen dena, eta zenbait urrats ezartzen dituen, lanbidearen alorrean eta arlo pertsonalean garatzen laguntzeko.
- Helburu duena *pertsonaren garapen osoa* lortzea, giza heldutasunaren dimentsio guztietan.
- Misio partekatu eta solidario batekiko *konpromisoarekin*, pertsona guztientzako ongia lortzeko.

Zintzoak izan behar dugu eta onartu behar dugu bide-laguntzak baduela *asimetria*-elementu bat: pertsona batek bide-laguntza jasotzen du eta beste batek bide-laguntza ematen du. Era berean, *elkarrekikotasun*-elementu bat ere badu (hazkundera-ikaskuntza); izan ere, elkar aberasteko balio du, eta bi pertsonak ki-deak sentitzen dira misioa batera eraikitzeke bidean. Dinamismo horiek ezagutzea lagungarria da argitzeko zeri buruz ari garen esaten dugunean bidean lagun egiten diegula eraldaketa-prozesu pertsonalei, gizarte-konpromisoko prozesuei edo inplikazio-prozesuei. Aitortu behar da, pertsonen bidean lagun egiteko, beharrezkoa dela kontuan hartzea eta indartzea prozesuaren oinarri hauek:

- **Zentzua bilatzea;** pertsona asko bizitzaren zentzua bilatzeko eta bizitzari zentzua emateko beharrezkoak hurbiltzen dira elkartasun-esperientzietara. Gure esperientzian, ikusi dugu pertsonen bidelagun izatea lagungarria izan daitekeela bilaketa horretan sakontzeko, aukerak orientatzeko. Gainera, ikusi dugu prozesu horrek gorantz egiten duela gizakiaren bizitzan zehar, ingurunearekin elkarrekintzan izandako esperientzietako zenbait faktoreekin hertsiki lotuta. Horregatik, errealitatearekin harremana izateko, errealitate horri buruz hausnartzeko eta errealitate hori norberaren bizitza-proiektuan gehitzeko eman ditzakegun esperientziak funtsezkoak dira.

- **Bizitzaren barnekotasuna eta sakontasuna;** pertsonari bere burua ardatz gisa hartzen eta osotasunean hazten laguntzen dizkioten parametroak dira. Horretarako, beharrezkoa da sentitzearen, ezagutzearen eta maitatzearen benetako bizipen pertsonal eta zentratu bat bilatzea. Horrek eskatzen du kalitatezko denbora bat izatea, ikusteko zer gertatzen den egunero gure bizitzetan, eta gai izatea gizakiaren iragankortasunaren hiru dimentsioak onartzeko: iragana, oraina eta etorkizuna, enfasi berezia jarrita orainean. Nazioarteko edo tokiko boluntarioritza-esperientzietan, adibidez, dimentsio hori oso garrantzitsua da. Nola lagun diezaiekegu hazten gizarte-erakundeok gizarte-inplikazioko esperientziak bizi dituzten pertsonari, esperientzia esanguratsuen bizipenen bidez.
- **Bereizketa eta berdintasuna;** bizitza etengabeko aukeraketa bat da. Gure aukerek eta haiek dakartzaten uko-egiteek pixkanaka gure identitatea eratzen laguntzen digute. Giza existentziak nola jokatu nahi dugun eta zer izan nahi dugun erabakitzeko deia egiten digu etengabe. Agian sakonagoa den dimentsio honen ondorioz, konpromiso-horizonteak eta bizitza-aukerak planteatzen lagundu behar diegu eremu sozialean beren bizi-eremua aurkitzen duten pertsona askori, gure bide-laguntzaren bidez.

Bide-laguntza pertsonala honako hau da:

- Prozesu bat.
- Garapen osoa sustatzen duena.
- Konpromisora bideraturik.

Bestalde, lankidetzaren bidez, bai Iparraldean bai Hegoaldean, bide-laguntza ematen digu eta bide-laguntza jasotzen digu taldeengandik eta erakundeengandik. Bide-laguntza hori ikustea zailagoa izan daiteke, baina gure gizarte-ekintzan era horretako prozesuak izaten ditugu esku artean, batzuetan, horren oso jakitun izan gabe.

**Taldeen eta erakundeen bide-laguntza** honako hau da: gizartea aldatzen laguntzeko harremanak ezartzea, eta, horretarako, hausnarketa, eragintza, kolektibo ahulenei emandako zerbitzua eta/edo parte-hartze proposamenak oinarri hartuta lan egitea. Bide-laguntza horrek funtsezko baldintzapen bat du: **gizartea aldatzeko nahia eta konpromisoa duen giza talde bat dagoela.**

Testuinguru horretan, esan daiteke taldeen eta instituzioen bide-laguntza **prozesu bat dela, erakundeen eta haiek osatzen dituzten pertsonen potentziala sustatzen duena, zerbitzu solidario hobe bat eman dezaten eta elkar aberastu dezaten.**

Prozesu horren ondorioz, zenbait harreman sortzen dira, denboran zehar xehetasun desberdinak hartzen dituztenak; izan ere, esperientziak erakutsi du harreman horiek bilakaera bat izaten dutela joan-etorriekin, adostasunekin, desadostasunekin eta beste adostasun berri batzuekin. Aldaketa pertsonalak eta instituzioen hazkundeak joaten dira, bereziki, harreman-mota horiek aldatuz.

Pertsonen bidelagun izatean gertatzen den moduan, taldeen eta pertsonen bide-laguntzan ere badaude aurretiko jarrera eta oinarri batzuk, aukera ematen dutenak elkarrekin hitz egiteko, elkarri entzuteko eta elkarri babesa emateko, eta horren bidez harremana aberasteko. Hauek dira:

- **Enpatia.** Enpatiaren bidez, kanpotik desberdintasun nabarmenak izan arren, erakundeek ikus dezakete zerk elkartzen dituen, eta kide bihur daitezke.
- **Irekitasuna.** Bide-laguntza emateko eta jasotzeko nahia. Interes hori dela eta, harremanak eman dezakeenaren aldeko apustua egin behar da.
- **Hurbiltasuna eta elkarrekiko maitasuna eta estimua.** Aldian-aldian zuzeneko harremanak izatea eskatzen du horrek. Harremana lan-arlotik urrunago doa, eta pertsonen arteko harremanak zaintzen ditu.
- **Distantzia afektiboa,** objektibotasuna ez galtzeko.
- **Errespetatzea** erritmoak, izaerak, erreakzionatzeko moduak, erabakitze moduak... Beharrezkoa da entzuteari eta onartzeari ematea lehentasuna, eta ez kritikatzeari eta gaizki-esaka aritzeari.
- **Pazientzia,** erritmoei laguntzeko.
- **Elkarrekiko konpromiso instituzionala izatea,** elkarrekin diseinatutako prozesuan, elkarrekiko konfiantzaren gainean eraikia.
- **Aitortzea** prozesu honen ondorioz ikasitakoa, eta malgutasuna izatea hori gauzatzeko.
- **Borondate politiko instituzionala,** pertsonalismorik gabe gauzatzeko prozesua.

- **Komunikatzeko eta parte hartzeko bideak** ematea, bai bide-laguntzaren proposamenen aritutako pertsonen, bai eta proposamen horien oinarriak definitzen aritu direnei ere.
- **Ezagutzak eta trebetasunak garatzea**, eta balioak transmititzea egiteko moduetan, tratuarekin eta hurbiltasunarekin lortzen den afektibitate baten bidez.
- **Ebaluazioak eta berrikuspenak egitea** aldian-aldian, harremanek denboran iraun dezaten, gatazkak ongi konpontzen diren eta elkarrekin eraikitako diskurtsoa partekatzen den heinean.
- **Harreman instituzional egonkorra**, aurreko guztiari laguntzeko.

Taldean, erakundeetan edo aliatuen arteko bide-laguntza hori funtsezkoa da garapenerako lankidetzan. Elkarren bidelagun izateko sortzen ditugun harremanek ezaugarri horiek betetzen dituzten heinean, gure lana eraginkorragoa izango da, eta koherenteagoa gizartearen sustatu nahi dugunarekin. Askotan, gizarte-erakundeetan arteko harremanak korapilatu egiten dira. Beharrezkoa da gelditzea eta pentsatzea nola landu dezakegun elkarren bidelagun izatea oinarri duen harreman-mota bat, modu eraginkorragoan laguntzeko gizartearen aldatzeko ditugun helburuei. Hegoaldeko erakunde aliatuen kasuan, bide-laguntza nola ematen diegun eta haiekin zer harreman ditugun hausnartu beharko genuke zintzotasunez.

Bide-laguntza ez da:

- Zuzentzea.      - Aholkatzea.
- Teknika bat.    - Lerrokatzea.

Lankidetzaren deszentralizatutik, bide-laguntzako harremanak eraikitzearen aldeko apustu garbia egin behar dugu, eta aliantzaren ikuspegia garatu. Horrek esan nahi du gogor egin behar dugula lan Hegoaldeko erakunde aliatuekin, harreman-mota hobetzeko eremuak identifikatzeko, eta Iparraldeko erakunde aliatuekin eta administrazio publikoekin hitz egin behar dugula, lan egiteko ditugun moduak birplanteatzeko eta harreman sakon eta egonkorragoak lortzeko. Bide hori lankidetzaren eraginkorrago egiteko elementu bat delako uste osoa dugu. Gure diskurtsoarekin koherenteagoak diren harremanak eraiki behar ditugu, sintonian jar gaitzaten gure aliantzak indartzeko eta, horrenbestez, gure lanaren eragina indartzeko.





### 3. Hegoaldeko erakundeei bide-lagun egitean ikasitakoak

#### 3.1. ZEIN DIRA BEHARRIK SENTITUENAK?

**ALBOAN** 2009-2013 Plangintza Estrategikoa egitean, pentsatu zen garrantzitsua zela Hegoaldeko erakunde aliatuen poztasun-maila neurtzea, emandako bide-laguntza bideratzeko, indartzeko eta, hala bazegokion, hobetzeko.

Horretarako, bide-laguntzaren funtsezko lau alderdi jaso ziren.

- i. elkarrizketa **estrategiko** bat.
- ii. **proiektuetan, programetan eta prozesuetan** laguntzea.
- iii. beste alderdi batzuetan laguntzea, hala nola aholkularitzan, ikerketetan, bo-luntariotzan...
- iv. eta, azkenik, **bide-laguntza** on bat **definitzea**, kontsultatutako erakunde bakoitzaren arabera.

Jarduera horren ondorioz, ikusi ahal izan dugu *ikuspegi eta planteamendu es-trategiko* bera edukitzea dela alderdirik garrantzitsuenetako bat Hegoaldeko erakunde aliatuentzat. Beste alderdi azpimarragarri bat da *proiektuetan, progra-metan eta prozesuetan laguntzea* beharrezkoa dela eta balio handia duela, batez ere finantziazioaren alorrean.

Gure Hegoaldeko aliatuen ustez, lanerako estiloa oso garrantzitsua da. Eskatzen dute konpromisoarekin sustatzea horizontaltasunezko harremanak, konfiantza, ga-tazken irtenbideak, komunikazioa, elkarrizketa irekia, elkarren ezagutza eta elka-rekiko estimua. Lankidetzaren harremanak ez dira proiektuen eraginkortasunean

soilik oinarritzen; izan ere, *elkarrekin proposamenak eraikitzeko* aukera ematen duten epe luzeko prozesu horietan ere oinarritzen dira, *harremanetarako eta elkarrekin hausnartzeko guneak* sortzeko balio baitute.

Gure esperientzian, ikusi dugu funtsezkoa dela laguntzaren kate tradizionala gainditzen duten ukiezinetan oinarritutako epe luzeko harreman horiek sortzea. Haiek gabe, ia ezinezkoa izango litzateke krisi-testuinguruetan lankidetzan jarraitzea. Gure harremanen sendotasunari esker, lan egiteko modu berriak bila ditzakegu, sormena susta dezakegu, eta elkarrekin begira diezaiokegu etorkizunari, konplexua izan arren, bide-lagun izanez baikoaz etorkizun horretarantz.

### 3.2. ZER BALIOESTEN DUTE ETA ZER ESKATZEN DIGUTE ERAKUNDE ALIATUEK?

2011n zehar egindako epe ertainerako ebaluazio honek erakutsi zuen Hegoaldeko erakundeek bereziki azpimarratzen dituztela elkarrekiko konfiantza, horizontaltasuna eta elkar estimatzeko harremanak **ALBOAN**ekin egindako lanean. Honako hauek azpimarratzen dituzte, zehazki:

- Lantaldeak osatzen dituzten pertsonen konpromisoa, eta pertsona horiek instituzioez eta lantzen dituzten prozesuez duten ezagutza.
- Hurbiltasuna, horizontaltasuna eta jarrera irekia.
- Hegoaldeko instituzio eta erakunde guztiek egiten duten lana balioestea eta aintzat hartzea.
- Zuzeneko komunikazio etengabea.
- Hegoaldeko erakunde aliatuen prozesu instituzionalak errespetatzea.
- Iparraldeko GGKE-aren ildo estrategikoen eta helburu instituzionalen argitasuna.
- Elkarrekin hausnartzeko guneetan (mintegiak, topaketak...) parte hartzea.
- Denbora, baliabide teknikoak eta finantziarioa erabiltzea, erakunde aliatuetan gaitasun instituzionalak indartzeko.
- Bide-laguntza presentziala eta birtuala ematea proposamenak eraikitzeko, eta babes finantzariora ematea proposamen horiei.
- Eragin publikoko lana.

### 3.3. ZER IKASI DUGU ESPERIENTZIAREKIN?

Hegoaldeko erakunde aliatuekin ditugun harremanen arlo guztietan, bide luzea geratzen zaigu oraindik lankidetzaren orientazioa hobetzeko, bai eta ematen zaien bide-laguntza hobetzeko ere. Alde horretatik, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Garrantzitsua da baliabide ekonomikoak eta denbora erabiltzea erakunde aliatuen gaitasunak indartzeko, adibidez, gai teknikoetan.
- Ebaluazioak eta sistematizazioak egin behar ditugu elkarrekin, ikaskuntzak partekatzeko.
- Instituzioei eta lan-esperientziei buruzko informazioa trukatzea komeni da.
- Aintzat hartzen dira tokira bertara egindako bisitak, bai eta bide-laguntzaren estiloa hurbilekoa, horizontala eta elkarren estimuan oinarritua izatea ere.
- Zaindu egin behar dira testuinguruko eta herrialdeko elementuak (ziurgabetasun ekonomikoa, legedia), erakundeak (ildo instituzionalak, jarduteko askatasuna) eta haietako aldaketak.
- Kontuan hartu behar dira aurretiko esperientzia eta harreman negatiboak, eta ikusi behar da aurretiko bide-laguntzetatik sortutako zer proposamenek ez duten lortu jendeak jarrera irekia izatea.
- Denborarekin lagundu behar zaie erritmo eta egoera instituzionalari.
- Misio eta ikuspegi instituzionalari buruzko elkarrizketa handiagoa behar da hasieratik: plangintza estrategikoko prozesuak partekatu behar dira, eta erakunde aliatuak instituzionalki indartzeari babesa eman behar zaio.
- Komeni da etengabe komunikatzea, ez une jakin batzuetan soilik.
- Pertsona gehiagok hartu behar dute parte aurrez aurre erakunde aliatuak indartzeko prozesuetan, tresnak eta laguntza teknikoa ematea errazteko.



## 4. Garapenerako lankidetzaren esparruan bide-lagun egiteko gure proposamena

### 4.1. IKUSPEGIAN

“Jokabide hau, etengabeko entzute, elkarrizketatze eta lagun egiteko bide partekatutzat ulertzen dugu.

Bi aldeek elkar aberasten eta interpelatzen dutena, bai beren izateko arrazoiari eta baita bere egiten dutenean ere.

Lagun egite hau aurrera eramateko, adre ematen digun bizipen espiritualari eta zentzuaren neurriari leku egiten diogu, jakitun baikara, horietan sortzen direla justiziaren kultura eraikitzeke lanean lagunduko diguten uste sendoak eta motibazioak.

*ALBOANen Eginkizunetik (2009-2013)*

“Bide-laguntza” bat dator pertsona eta talde askorekin egiten dugun lanaren elementu nagusiekin. Pertsona guztiok duintasunez bizi ahal izateko moduko mundu bat eraikitzeke, guztiok egin behar dugu lan, eta pertsona, komunitate edo entitate bakoitzak bere gaitasunak erabili behar ditu, mundu desberdin bat eraikitzeke. **ALBOAN**etik, bide horretan bat egin nahi dugu, besteen zerbitzura jarriz, errespetuz eta ikasteko gogoz. Uste dugu topaketa hori oso baliogarria zaigula erakunde gisa eta pertsona gisa. Elkarrekiko prozesu bat da, eman eta jaso egiten dugulako, bidean lagun egiten dugulako eta bidean lagun egiten digutelako.

**Bide-laguntza pertsonalari dagokionez**, nahiz eta eremuak eta edukiak oso zabalak eta era askotakoak izan daitezkeen, kontuan hartu behar da bide-laguntza

horretan pertsona bakoitzari zenbait ikuspegi proposa diezazkiokegula, pertsonaren ezaugarrietan oinarrituta; hor sartzen da transzendentzia ere, bizitzaren zentzuaren bilaketa amaitzeko tresna gisa.

Bide-laguntza horrek honako arlo hauek har ditzake barnean:

- i. *nahitaezko* arlo bat; pertsonarenganako benetako interesa erakutsi behar da, eta, hala badagokio, bereizketa-prozesuetan erabakiak egiaztatzen lagundu behar zaio.
- ii. arlo *profesional* bat; pertsonak jakin behar du, bere lan-instituzioarekin dituen betebeharrak profesionalen harago, afektibitatezko eta konpromisozko harreman bat dagoela, eta bere uste sendoak eta bere bizitzaren zentzua adierazteko erabil dezakeela eremu hori.
- iii. *transzendentziaren* arloa; pertsonak adierazi dezake zer bizitzen duen bere barnean, zein den bere bizitzaren zentzuan.

**Instituzioen eta taldeen bide-laguntzari dagokionez**, helburua da elkar aberasteko harremanak sortzea, bi alderdiek jaso ditzaten onurak, horizontaltasun handiago batetik. Era horretako harremanek eskatzen duten simetria eta elkarrekikotasuna bultzatzeko, elkarrizketa etengabea eta komunikazio eraginkorra behar dira. Horretarako, eztabaidarako eta egiaztapenerako guneak behar dira. Elkarrizketa horretatik, harremana eta lankidetzaren ulertzeko modu bateratu bat sortu behar da.

Eta ez da ahaztu behar, era horretako bide-laguntzetan, alderdi bakoitzak betebeharrak eta kontraprestazio batzuk dituztela. Beraz, bi alderdietako edozeinek erabaki dezake bide-laguntza uztea. Hori dela eta, jasotzen dituzten proposamenen haritik barneko egiaztapenak eta aldaketak egiteko jarrera irekia izan behar dute instituzioek.

## 4.2. PRAKTIKAN

a) **Bide-laguntza pertsonala** errealitatean gauzatzeko, honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Zereginetarako bide-laguntza; hemen lantzen ari garen bide-laguntza errealitatean gauzatzeko, funtsezkoa da taldeak koordinatzea eta haien buru izatea, pertsonen hazkunde profesionala sustatzeko eta zereginak behar bezala egiten

dituztela ziurtatzeko. **ALBOAN**en, elkarrizketaren bidez egin nahi dugu hori, aintzat hartuta pertsona bakoitzaren egoera pertsonala eta pertsona bakoitzaren gaitasun eta beharrak. Jarduera honek balio instituzionaletan sakontzen du, pertsonen prestakuntza osoa sustatzen du eta misioari zerbitzu hobea emateko gaitzen ditu pertsonak.

- Bide-laguntza pertsonalizatua; bizitzako edo laneko esperientzien egoera zehatzetan gertatzen da. Bizitzako gertaerek gure barneko munduan sortzen dituzten sentimenduen eta emozioen eremua du berezko. Horregatik, pertsonaren barneko ezaugarriak lantzen ditu, pertsonak misioari dion atxikimenduari lotuta daudenak.

Adierazi behar da ez direla eduki guztiak erabiltzen bide-laguntza instituzionalaren harremanetan, eta harreman guztiak ez daudela estilo horren mende. Hemen ideal formal eta ezagun bat deskribatu dugu, harremanek edo harremanetako batzuek bide-laguntza gehi dezaten, oso lagungarria baita pertsonen hazkunderako.

Hori martxan jartzeko, bide-laguntzarako baliogarriak diren gaitasun batzuk behar dira:

- Harrera egiteko eta entzuteko gaitasuna; hitzik gabeko komunikazioa, keinuak, ahotsaren tonua, begietara begiratzea eta halakoak funtsezkoak dira bidean laguntzean, pertsona eta haren adierazpenak onartzen ditugula adierazteko.
- Objektibatzeko gaitasuna, informatzea; pertsonaren desadostasunak errespetuz lantzea, eta esanahiak eta harremanak interpretatzea, pertsona horrek hobeto uler dezan bere burua, bere jarrera...
- Galdetzeko gaitasuna; pertsonari bere burua hobeto ezagutzen eta zer gertatzen zaion ulertzen laguntzen dioten galdera egokiak egitea.

b) **Taldean eta instituzioen bide-laguntzan**, aztertutako bide-laguntzaren dimentsioak martxan jartzean, era askotako elementuak hartu behar dira kontuan: garapenerako lankidetzaren alorrean egiten dugun lanean, elementu horiek estrategikoenetatik hasi eta gai tekniko edo operatiboenetaraino doaz:

- Elkarrizketa estrategikoa (etengabea eta eraginkorra)
  - Ikuspegi eta planteamendu estrategiko bera izatea guztiok.
  - Elkarrekin hausnartzeko guneak izatea.

- Plangintza estrategikoetan parte hartzea.
  - Instituzioak indartzen laguntzea.
  - Elkarrekin eragitea.
  - Elkarrekin egindako lana ebaluatzea.
  - Ikasitakoak elkarri adieraztea.
  - Elkarri kontuak ematea.
- Proiektuetan, programetan eta prozesuetan laguntzea
    - Finantziazioa lortzea.
    - Proposamen onak sortzea elkarrekin.
    - Babes tekniko ona izatea.
    - Aztertze eta kudeatzeko tresnak ematea.
    - Plangintzarako tresnak ematea.
- Beste alderdi batzuetan laguntzea, hala nola hauetan
    - Generoaren arloko aholkularitza.
    - Jarraipenaren eta ebaluazioaren arloko aholkularitza.
    - Boluntarioak.
    - Ikerketak.
    - Esperientziak partekatzea Hegoaldeko beste erakunde batzuekin.
    - Iparraldean egiten den lana Hegoaldeari jakinaraztea.
    - Prestakuntza espezifikokoak.

### c) **Administrazio publikoekin** harremana izateko modu gisa

Agian ausarkeria bat dirudi instituzio publikoekin bide-laguntzazko harremanak ezarri behar direla esateak, baina uste dugu elkartzen gaituen helburuak, giza garapena eta gizarte-justizia sustatzeak, harreman-mota berriak eta lan egiteko modu berriak eskatzen dituela.

Administrazio publikoen eta GGKE-en elkarketari esker, gizarteak demokratikoa-goak bihur daitezke; izan ere, garapenerako politikei buruz eztabaida dezakete eskualdeko eta tokiko guneetan, bai Iparraldean, bai Hegoaldean.



Gure testuinguruan, GGKE-ok zeregin garrantzitsua daukagu (edo eduki dezakegu) gobernu deszentralizatuen garapenerako lankidetzaren politika garatzeko, gizarte-erakundeetan ere eztabaidatzen, pentsatzen eta gauzatzen baita politika hori. Gaur egun arte erabili ditugun parte-hartze guneak hasiera on bat izan daiteke elkarrizketarako eta lankidetzarako ikuspegiak, tresnak eta mekanismoak indartzen dituzten beste gune batzuk sortze aldera. Parte-hartze gune horien bidez, modu koordinatuagoan egin dezakegu aurrera gure gizarteak eta garapenerako lankidetzak garatzeko garrantzitsuak diren ildo batzuetan; adibidez, lana gehitzen dugu oso garrantzitsuak diren norabide batzuetan, hala nola koherentzia eta koordinazioan, eta zenbait jarduera sustatzen ditugu, hala nola erosketa publiko etikoa eta bidezko merkataritza.

Horrez gain, Hegoaldean, GGKE-ok gizartea demokratikoagoa bihurtzea bultzatzen dugu, gure erakunde aliatuekin batera. Horretarako, gizarte zibila indartu nahi izaten dugu, garapenarekin lotutako politika publikoen gaineko eztabaidan parte har dezan, eta, ahal den neurrian, politika horiek elkarrekin eraiki ditzagun. Kasu batzuetan, gure esku-hartzeak zuzenean lotuta egoten dira gizarte zibilean zenbait gaitasun eraikitzearekin, lege-esparruek irekitzen dituzten kontzentrazio-eremuetan parte har dezaten gaitasun horien bidez. Beste kasu batzuetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuak ematea lortzen dugu, eta zerbitzu publikoen zorrora gehituz joaten dira gerora.

Bide luzea geratzen da oraindik ere era horretako harremanetan aurrera egiteko autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeekin, eta haien Hegoaldeko homologoekin. Beharrezkoa da administrazioen eta gizarte zibileko erakundeen arteko harremanak indartzea. Izan ere, era horretako harremanen bidez, elkar indartuko lukete biek, eta eragile gehiagok hartuko luketenez parte, aliantzen eraginak eta eraginkortasunak gora egingo luke ziur asko.

Argi dago egin beharreko bide hori egitea ezinezkoa izango dela ez badugu aliatu gisa elkar hartzen; zeregin desberdinak egin arren, helburu berberak ditugun bidaztiak gara, eta gure zereginak elkartzen ditugu guztion ona eraikitzeko. Horregatik, beharrezkoa da bide-laguntza ardatz hartuta pentsatzea, baldin eta aliantzazko harremanak sortu nahi baditugu kontratuzkoak baino gehiago, eta gure testuinguruan eta lankidetzan dihardugun testuinguruetan guztion ona eraikitzeko baliozko bitarteko gisa har gaitzaten nahi badugu.



## 5. Eztabaidatzeko daudenak

Beste pertsona batzuen eta beste talde eta instituzio batzuen laguntzarekin bidea egiteak esan nahi du **erantzunkide** sentitzen garela, pertsona eta instituzio gisa, arrakastetan eta porrotetan; gai garela taldean eta talde desberdinetan lan egiteko; eta gai garela elkarrekin eraikitako proiektu kolektiboek emateko lehenetasuna, gure ideia eta ilusio partikularren eta/edo alderdi baten ideia eta ilusio partikularren gaitetik, nahiz eta ideia horiek oso onak izan. Horregatik, oso garrantzitsua da gure eskubideak eta betebeharrak onartzea, eta **modu aktibo eta arduratsuan parte hartzea**.

Gizarte zibileko erakundeek eta lankidetzaren deszentralizatuaren beste eragile batzuek lan egiteko erabiltzen duten modu hori **atmosfera** moduko bat da, eta gu han barruan mugitzen gara. Hegoaldeko eta Iparraldeko pertsona, talde eta instituzioek ezagutzen gaituztenean eta gure ekintzetan laguntzen dutenean adierazten eta ikusten da atmosfera hori. Estilo horren oinarrian, barneratuta dauzkagun zenbait jarrera daude, ezagutzen ditugunak eta egunerokotasunean lantzen ditugunak:

- **Elkarrekiko konfiantza.** Gurekin lan egiten duten edota gurekin lankidetzan diharduten pertsonak eta erakundeak aintzat hartzea, balioestea eta estimatzea, bai izaera aldetik bai egiten dutenaren aldetik. Konfiantza badugu, uste dugu borondate onak eta eginkizunean/eginkizunetan aurrera egiteko nahiak gidatzen dituela jarduerak eta hartutako erabakiak.
- **Entzutea eta hitz egitea.** Guztion artean bilatzea zer den komenigarriena; komenigarriena ez da beti onena dirudiena, baizik eta pertsona guztiok urrutien garamatzana. Beste pertsonak edo beste instituzioak esan nahi diguna ulertzeko gaitasuna izatea eskatzen du, eta askatasuna izatea sentitzen duguna

eta pentsatzen duguna errespetuz eta modu garbian adierazteko, maila pertsonalean nahiz erakunde-mailan.

- **Benetan irekitzea eta errespetatzea.** Bi jarrera horien bidez, pertsonak eta instituzioek elkarpenak egin diezazkiekete elkarri. Ireki gabe, ezin da gardentasun-giro bat sortu, eta errespeturik gabe, irekitzea kaltegarria izan daiteke. Bileretako, topaketetako eta komunikazioetako giroa zaintzea eskatzen du horrek.
- **Estimua eta maitasuna.** Pertsona den bezala onartzea orokorrean.
- **Samurtasuna.** Pertsonenganako estimua eta errespetua adieraztea tratuan. Pertsonen eta prozesu instituzionalei buruzko informazioarekin zuhurra izatea ere sartzen da hor.
- **Erantzukizuna eta eskuzabaltasuna.** Bi jarrera horiek erabili behar dira lanean, ekintza eraginkorragoak lortzeko. Eskuzabaltasuna oso garrantzitsua da pertsonen eta/edo instituzioen artean sortu ohi diren gatazkek konpontzeko.
- **Pazientzia.** Pertsonak eta instituzioak aldatzeak denbora behar duela ikustean sortzen da.

Gure harremanetan eta lanean jarrera horiek erabiltzea lagungarri zaigu, eta lagungarri izango zaigu gero ere, guztion artean bide bat eraikitzeke eta mundu justuago eta solidarioago baten alde lan egiten duen eta bizi den giza talde bat garelako sentitzeko, gure aniztasuna errespetatuz eta elkar estimatuz.

Uste sendoak, apustu pertsonalak, sormen handia, eskuzabaltasuna eta doakotasuna behar dira giza garapenean aurrera egiteko eta pobrezia aurka borrokatzeko.

Beraz, ez da nahikoa lan profesionalizatu bat, nahiz eta hori ere behar-beharrezkoa den. Gure lankidetzak helburuek afektiboki parte hartzea ere eskatzen digute; izan ere, afektuetan erabakitzen dira gure bizitza-jarrerak, eta bizitza-jarrera horiek desberdintasun handiak eragin ditzakete egiten ditugun gauzetan.

Horregatik, zentzuari, transzendentziari eta justiziarik buruz hitz egiten dugu; hau da, erlijio-tradizioetan “espiritualtasuna” esan izan zaionari buruz. Lortu nahi ditugun helburuak lortzeko, funtsezkoa da zentzu hori bizirik edukitzea gure barrenean. Zentzu hori ez da ikusten, baina, existitzen bada, sentitzen da; eta, existitzen ez bada, haren hutsunea sumatzen da.

Gure lanaren azken motibazio-iturri horiek gure eremu pribatuaren zati dira, baina haiek irautea eta haztea nahi badugu, ez ditugu modu pertsonalean soilik landu behar, taldean ere landu behar ditugu. Eta arlo horretan ere egin diezaiokegu lagun elkarri, iturri horiek bizirik iraun dezaten lortzeko. Alde horretatik, motibazio-iturriak elikatzeko, oso lagungarria da komunikazio sakonak izatea:

- Adierazten dugunean zergatik egin dugun lan eta zer irten den ongi, eta pertsona askoren parte-hartze eskuzabalaren emaitza izan dela ikusten ikasten dugunean.
- Elkarri adierazten dizkiogunean porrotak eta atsekabeak, haiek ukatu gabe. Hartara, nolabaiteko distantziarekin ikus ditzakegu porrot eta atsekabe horiek, ezkortasunera eraman gaitzaten utzi gabe.
- Gure bizitzako gertaerak ospatzean, eta ospakizun horietan pertsonak gurekin daudela sentitzean.
- Gure lanak edo gure harremanek izugarri pozten gaituztenean eta itxaropena sortzen digutenean, eta, haiek partekatuz, egiten ditugun gauzen azken egia ikusten laguntzen diegunean beste pertsona batzuei.
- Justiziaren eta giza garapenaren alde borroka egiten jarraitzeko gai garenean, nahiz eta zailtasunak eta testuinguru gogorak aurkitu.

Garapenerako laguntza eraginkorra izateko, filosofia hori behar da, egoteko eta egiteko modu hori, bidelagun izateko eta partekatzeko jarrera hori. Hartara, elkarri lagun egiteko bide bat egingo dugu elkarrekin, giza garapena pertsona guztiengana iristeko ditugun ametsak partekatuz.



## 6. Bibliografia

### **Koaderno hau idazteko oinarritzat erabili den dokumentazioa:**

**ALBOAN.** (2011). El acompañamiento de personas, grupos e instituciones. Estilo institucional de **ALBOAN.** (Barneko dokumentua).

**ALBOAN.** (2011). Evaluación de acompañamiento a organizaciones aliadas del Sur. (Barneko dokumentua).

Marronquin, M. Acompañamiento y Discernimiento. (2012-2013). Arrupe Etxeko ikastaroko apunteak. Bilbo.

Loiolako Probintzia. (2012). Bide-laguntza pertsonala. Prestakuntza-plana.

